

# Bisita gidatuak, ibilaldiak, bizikleta txangoak eta beste asko, bailaran

Kronika - Erredakzioa 2022-08-08 00:00



Bi herritar SagarBike ekintzan, bidegorrian, bailarako sagastietan barrena.

Adin tarte guztietarako eskaintza da, eta abuztuan, irailean zein urrian egin daitezke ekintzak. Informazioa eskuragai '[www.donostialdea.eus](http://www.donostialdea.eus)' edo plan bakoitzeko web orrian.

Udan bete-beteta sartuta egotearekin batera, aisialdirako makina bat plan aurkeztu dituzte Urumea bailaran hilabete hauetarako. Denetarik egiteko aukera izango dute herritarrek, eskaintza zabala baitago adin tarte guztietarako. Zenbait egiteko doakoak dira eta beste batzuetarako, berriz, beharrezkoa izango da aldez aurretik ordainketa egitea. Informazio guztia eskuragai dago [www.donostialdea.eus](http://www.donostialdea.eus) webgunean.

## Musika, historia eta kultura, Hernaniko eskaintzan

Hernaniri dagokionez, herriko hirigune historikoan bisita gidatuak egiteko aukera dago. Ordu eta laurden inguruko ekintza da, asteartetik igandera, goizeko 11:30etan hasita. Doakoa da, baina beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea. Horretarako, informazio turistiko puntura bertaratu (Biteri), deitu 688 607 838 telefono zenbakira edo, bestela, idatzi mezua [turismoa@hernani.eus](mailto:turismoa@hernani.eus) helbide elektronikoak. Ekintza horretan, gida Biteriko turismo informazio gunetik irtengo da taldearekin. Herrigune historikoan barrena oinezko ibilbidea osatuko dute bisitariak, gidaren azalpenak Erdi Arora gerturatzen dituen bitartean. Besteak beste, azalduko dizkie armariak, dorretxeak, garaiko jendartearen bitxikeriak, eta abar.

Horrez gain, Chillida Leku ere aukera bikaina da abuztu honetarako. Museo zabalik dago egunero, asteartetan eta asteazkenetan izan ezik, 10:00etatik 18:00etara. Museoa bisitatzeaz gain, une honetan ikusgai dago Joan Miró-ren erakusketa. Gainera, *yoga eskultura artean & brunch* izeneko saioak ere prestatu dituzte. Horrela, antolatzaileek aipatu dute yoga saioaren ondoren, parte-hartzaileek hamaiketako osasungarria izango dutela Lurra Café jatetxean. Hilaren 13an, 20an eta 27an izango dira hitzorduek, goizeko 09:00etan hasita. Halaber, abuztuaren 10an eta 21ean, 83. Musika Hamabostaldia ospatuko da musoean. Donostiako Musika Hamabostaldia Chillida Lekura itzuliko da, eta Dmitri Shostakovitx musikagile errusiarrari eskainitako programarekin jarraituko du Gerhard Cuartetorekin.

Eskaintza guztietarako, beharrezkoa da aurretik sarrerak eskuratzea, eta salgai daude guztiak [www.museochillidaleku.com](http://www.museochillidaleku.com) webgunean.

Bestalde, Galarreta frontoian erremontea ezagutzeko aukera luzatu dute. «Besteak beste, Kantxara jaistera gonbidatu eta gure pilotarietako batekin pilotaren abiadura eta zesta eskuan izatearen bizipena ezagutuko duzu», aurreratu dute. Bisita gidatuak ostegunero eta larunbatero egiten dira, arratsaldeko 14:45etatik 16:30etara. Ondoren, 16:00etatik 20:00etara jokatzen diren partiduetan gelditu ahal izango dute planera animatzen direnek. Informazio gehiagorako, deitu 943 55 10 23 telefono zenbakira edo kontsultatu [www.galarreta-jaijai.com](http://www.galarreta-jaijai.com) web orria.

**Sagardoa erdigunean, Astigarragako agendan**

Udaran ere sagardoaren lurraldea ezagutzeko parada eskaini dute. SagarBike izeneko planarekin, Urumea ibaiaren ertzetik doan ibilbidea bizikletan egin ahal izango da, «sagardo ibai honen inguruko sekretuak ezagutu eta Astigarragaraino iritsita, sagardoaren bihotzera». Bertan, Sagardoetxera joan eta sagardoaren kulturen barneratuko dira bisitariak, eta, horrez gain, dastaketa berezia ere izango dute. Eskaintza hau asteartetik larunbatera artean izaten da, 10:00etan edo 15:00etan. Igandetan eta jaiegunetan, berriz, 10:00etan. Lau orduko iraupena du, eta urrira arte dago parte hartzeko tartea.

Horrekin batera, Sagardoetxea ezagutu eta sagardotegiko menu tipikoa dastatzeko plana ere proposatu dute. Honako hauxe izango litzateke ekintza: hasteko, Euskal Sagardoaren Museoa bisitatu; gero, sagardo, muztio eta likore dastaketa; eta, amaitzeko, sagardotegian bazkaria edo afaria. Menuak biltzen ditu bakailu tortila, bakailu frejitua piperrekin, txuleta, gazta intxaurrekin eta sagar dultzearekin, eta sagardoa txotx-etik. Plana egin ahal izango da asteartetik larunbatera, 12:30etatik 19:00etara, eta, igandetan zein jaiegunetan, 12:30etan. Prezioari dagokionez, helduek 33 euroan eskuratu dezakete txartela, haurrek dohainik eta 4-17 urte bitartekoek, 15 euroan. Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: [www.sagardoarenlurraldea.eus](http://www.sagardoarenlurraldea.eus).

[Kultura](#) [Astigarraga](#) [Ereñotzu](#) [Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.



Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



**Ikusienak**



[Mondragon Unibertsitateak, Galarretako campuseko](#)



['Burujabetzen herrian biziko gara' kanpaina aurkezteko,](#)



[Atzo hasi zen epaiketa hiru gizonen aurka, 2020an beste](#)



[Gudari eguna dela eta, ekitaldia](#)



[Mundarrok irabazi du derbia, berriro ere](#)



[Sekulako festarekin ospatu zuten](#)

|                                                                |                                                                |                                                                |                                                                |                                        |                                                         |
|----------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|----------------------------------------|---------------------------------------------------------|
| <a href="#">urumea ingeneritzako 120 ikasle</a>                | <a href="#">ekitaldi irekia, larunbatean</a>                   | <a href="#">gizon bat hiltzen saiatzeagatik</a>                | <a href="#">antolatu du Sortuk, gaurko</a>                     | Kronika - Erredakzioa<br>ira 27, 00:00 | <a href="#">mende erdia 1972koek!</a>                   |
| <a href="#">berriekin hasi du ikasturtea</a>                   | Kronika - Erredakzioa<br>ira 28, 00:00 <a href="#">Hernani</a> | Kronika - Erredakzioa<br>ira 27, 08:55 <a href="#">Hernani</a> | Kronika - Erredakzioa<br>ira 27, 00:00 <a href="#">Hernani</a> |                                        | Kronika - Erredakzioa<br>ira 26 <a href="#">Hernani</a> |
| Kronika - Erredakzioa<br>ira 27, 00:00 <a href="#">Hernani</a> |                                                                |                                                                |                                                                |                                        |                                                         |

## Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

|                                      |                                |                         |                                     |                        |                                    |                         |                           |                                   |                        |                          |
|--------------------------------------|--------------------------------|-------------------------|-------------------------------------|------------------------|------------------------------------|-------------------------|---------------------------|-----------------------------------|------------------------|--------------------------|
| <a href="#">AIARALDEA</a>            | <a href="#">AIKOR</a>          | <a href="#">AIURRI</a>  | <a href="#">ALEA</a>                | <a href="#">AMEZTI</a> | <a href="#">ANBOTO</a>             | <a href="#">ANTXETA</a> | <a href="#">ATARIA</a>    | <a href="#">BALEIKE</a>           | <a href="#">BARREN</a> | <a href="#">BEGITU</a>   |
| <a href="#">DEUSTUALDEA PREST</a>    | <a href="#">ERLO TELEBISTA</a> | <a href="#">ERRAN</a>   | <a href="#">EUSKALERRIA IRRATIA</a> |                        |                                    | <a href="#">GEURIA</a>  | <a href="#">GOIENA</a>    | <a href="#">GOIERRI TELEBISTA</a> | <a href="#">GUAIXE</a> | <a href="#">HIRUKA</a>   |
| <a href="#">KARKARA</a>              | <a href="#">KRONIKA</a>        | <a href="#">MAILOPE</a> | <a href="#">MAXIXATZEN</a>          | <a href="#">NOAUA</a>  | <a href="#">OIZMENDI TELEBISTA</a> |                         | <a href="#">PLAENTXIA</a> | <a href="#">TXINTXARRI</a>        | <a href="#">URIOLA</a> | <a href="#">UZTARRIA</a> |
| <a href="#">28 KANALA</a>            |                                |                         |                                     |                        |                                    |                         |                           |                                   |                        |                          |
| <a href="#">Gurean</a>               |                                |                         | <a href="#">Plazanbazan</a>         |                        |                                    | <a href="#">Itap</a>    |                           |                                   |                        |                          |
| <a href="#">Tokikom publizitatea</a> |                                |                         |                                     |                        |                                    |                         |                           |                                   |                        |                          |